



IMANOL ALVAREZ
IRAKASLE OHIA

EAJ eta fagozitosia

Fagozitosian, zelulak molekula bat mintzez inguratu eta irentsi egiten du. Analogiaz, esan ohi da mugimendu sozial baten aldarrikapena gizartean zabaltzeko eta onartu samarra denean, sistemak fagozitu ohi duela. Horri sistemaren fagozitosia esaten zaio. Fagozitosiaren xedea, esan gabe doa, aldarrikapena eta mugimendua bera neutralizatzea da, ahultzea deuseztatzeraino; hots, edukiz hustu ahalik eta gehien, eta, ahal izanez gero, izatea bera eragotzi.

Nik ez dakit gurean EAJk egiten duena zehatz-mehatz fagozitosia den; baina oso antz handia dio. Izan ere, edozein herri mugimenduk edo elkartek kontuan hartzeko moduko sona edota ahalmena lortzen duenean, alderdiak prozedura bera erabiltzen du beti.

1. Lehenengo, adeitsu hartzen du, aldarrikapenok entzun, bai eta jaramon egin ere (neurri batean baino ez, jakina), tartean botoak egon daitezke-eta.

2. Behin elkarrenganako sasi konfiantza lortuta, apurka-apurka mugimendua kontrolatzen ahalegintzen da; nahi ez duenak bezala, lar nabaritu barik, baina modu eraginkorrean.

3. Estrategia gaizki ateraz gero, hots, erakundea ez badago prest erabilia izateko, hirugarren faseari ekiten dio: egitura paraleloa sortu, eta berori hauspo-

tu eta bultzatu.

4. Horrekin batera, nola ez, jatorrizko mugimenduari imajina litezkeen oztopo guztiak jartzen dizkio (ez ahaztu, azken helburua desagerraraztea dela), ekonomikoki itoz (diru-laguntzarik ez, publizitaterik ez...) eta ohiko jardura eragotziz (legez kanpo utzi, baimenak ukatu, izen ona zikindu...).

Adibideak, erraz aurki ditzakegu. AEK-rekin gertatu zen, Joseba Arregi Kultur sailburua zenean batez ere; eta HABE sortu zuen. *Egin*-en kontra aritzeko, *Deia* ateratu zuen. *Hemen*-en aurka, *Eguna*. Egunkariarekin ere ahalegindu arren, zorionez, planak porrot egin, eta ezin izan zuen buruan zerabilen egunkari alternatiboa argitaratu. LGTB+ mugimendurekin prozedurari jarraitu dio lerroz lerro eta fasez fase, azkenean Ortzadar sortuz...

Jubilatuaren elkarrekin ere egin berri du. Itzela da mugimendua, tsunami baten modukoa. Euren aldarrikapenak oihartzun izugarria lortu dute; Bilboko Udaren aurreko elkarretaratzeen isla izan da estatuko komunikabideetan, bai eta kanpokoetan ere... Bada, EAJ bere kordako elkarteren batzuekin bildu eta hasia da jatorrizko mugimenduaren kontra oлдartzen. Udaletxeko eskaileretan batzea debekatzearaino heldu da, zentzugabeko aitzakia lotsagarriak erabilia. ●

Manifak



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Hiru hilabete etxekoturik egon ondoan, jendeengan, plazara ateratzeko halako gutizia pizgarria sentitzen da. Hasieran distantzia soziala deitzen zuten egikerak zedarritu bakar-tasuna jasanezina izan da askorentzat. Bizidunak, landareak, abereak eta humanoak, nola ez, sortzetik beretik, izaki sozialak dira, beren on eta gaitzekin. Sendia hurbilaz eta tribuaz harago bildu nahi dugu gainerakoekin, pataskatzeko, maitatzeko edo xede kolektiboak aitzina eramateko.

Munduan zehar, ikusten denez, bereziki Georges Floyden Minneapolisko hilketa salatzearen karietara, jendeak

karriketan dabilta, multzoan, maskarak soinean, edo gabe, trinko eta tinko, polizia ezberdinei buru eginez. Elkarrekin izateko, ibiltzeko eta gas negargileen azpian ezezagunen artean sustatzeko gogo dagoela ezin uka, masa anonimotan urtzeko bezala, hala nola tabakoa erosteko Dantxarinean edo Donostiako parte zaharrean pintxoak dastatzeko.

Beldur gara musukoak ez ote diren gure ele-zaparradak mugatuko dituzten burdinazko idi-muturretakoak bilakatu. Ez dugu isolatuak egon nahi, hori ez, saldoan baizik, batzuetan zaila bada ere, bata bestearen bihotz taupak entzuten jarraitzeko. ●